



39. hitza bete nahi. Eta
hitzez bete naiz!

0. AZALA

Haur batzuek, baita haurrak ez direnek ere, entzun egiten dute gurasoek esandakoa, eta beste batzuek ez dute inoiz jaramonik egiten. Umearen eta gurasoen arteko harremanak zerikusi handia du kontu horretan. Gure ustetan, maitasunean, konfiantzan eta irmotasunean oinarritu behar dira harremanak.

Baina nola lortzen da konfiantza hori? Irrien Lagunen esanetan, emandako hitza beti betez. Guztion mesedetako izango dela deritzogu gure eguneroko jokamoldeetatik baztertzea beteko ez ditugun promesak edo mehatxuak.

Has gaitezen, bada, irakurketarekin gozatzen!

Azala aurrean dugularik, honako hiru eginkizun sinple eta argi hauek beteko ditugu irakurtzen hasi aurretik:

- Lehena, irudian erreparatzea eta ikusi duguna elkarrekin komentatzea.
- Bigarrena, izenburua irakurtzea eta beronek zer adierazten digun elkarri trukatzea.
- Eta, hirugarrena, Irrien aldizkariari promesa bat egin eta orritxo batean idaztea.

1. HAZI HEZI KALEAN

Hik hasik 20. urteurrena bete du. Irakur ezazue bertan ageri den informazioa lasai-lasai, eta ondoren, galdera batzuei erantzutea proposatzen dugu:

- Irakurri eta ikusitako irudiak kontuan izanik, zer deritzozu, zer da “hik hasi”?
- Webgunerik badu?
- Eroski ezagutzen duzu? Irrien laguna izango da?
- ...

Galderekin amaitzean, bisitatu ezazue Hik Hasi orrialdea. Animatu orrialdea arakatzera, gustatuko zaizue!



39. HITZA BETE NAHI, ETA
HITZEZ BETE NAIZ!

2. AURKIBIDEA

Hilero bezala, oraingoan ere laburpentxoari eta aurkibideari tartetxo bat emateko proposamena egiten dugu. Eta, ezertan hasi aurretik, irakurri patxadaz bertan ageri dena. Ondoren, honako ariketa hau proposatzen dugu:

- Aurkibidean ageri diren izenburuak orri zatietan idatziko dituzue.
- Ondoren, zaudeten lekuan, bakoitza txoko batean ezkutatuko duzue.
- Gero, denbora emango diozue orri zati hauek eguneko zenbait momentutan edo egunetan aurkitzeko.
- Orritxoak aurkitzeko pista “hotz ala bero” izan daiteke, edo zuei bururatzen zaizuen beste edozein.
- Orritxoak aurkitzen duenean, izenburua irakurri eta, aldizkariko zein orrialdetan dagoen jakiteko, aurkibidean begiratuko duzue.

3. PUPU ETA LORE

Esaiozu, marrazkiei gaineratik begiratzeko, eta galdetu ea zer bururatzen zaion, zeri buruzko istorioa izan daitekeen, zer gertatzen zaion... Gero, esaiouzu haurrari: “Ea asmatu duzun zer gertatzen zaion Pupuri eta Loreri.

4. PIRRI TX, PORRO TX ETA MARIMOTOTS

Imajinazioa lantzeko prest? Komikia irakurtzen hasi aurretik, orri zati zuri batekin estaliko ditugu bertan ageri diren lainotxoetako elkarrizketa batzuk. Ondoren, lainoak alde batera utziz, irakurri lasai-lasai komikia. Jarraian, alderantziz egingo dugu, estali gabe dauden lainotxoak irakurriko ditugu. Amaitzean, lainoak betetzen joango zarete, zuen irudimena eta sormena erabilita.

- Atal hau amaitzeko, galdera batzuk egiteko denboratxo bat hartzea proposatzen dugu:
- Zergatik uste duzu Pupu eta Lore protestan jardun direla?
- Bazuten arrazoia protesta egiteko?
- Zer deritzozu Porrotxen promesari?
- ...



39. HITZA BETE NAHI. ETA
HITZEZ BETE NAIZ!

5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Hauxe proposatzen dugu atala landu dezazuen:

- Orrialdea aurrean duzuela, komentatu irudian zer ikusten den. Adibidez: hartu ahoaren marrazkia, eta egin galdera batzuk (zer ikusten duzu bertan?, zer esan nahi digu?...).
- Ondoren, aurreko ataletan egin izan dugun ariketa bat proposatzen dugu: aholkuak irakurtzen hasi aurretik, aldizkariako aholkuen fotokopia bat aterako duzue, eta, jarraian, estali egingo dituzue. Amaitzeko, ateratako fotokopia hartu, eta aholkuak moztuko dituzue; nahastu moztutako aholkuak, eta, banan-banan, bakoitza bere lekuan jartzen joango zarete. EA ASMATZEN DUZUEN! Bitarte horretan, irakurri aholkuak eta komentatu hauek zuen egunerokoan betetzen dituzuen edo ez.

6. ELEFANTE BAT HEGAN

“Elefante bat hegan” ipuina lasai-lasai irakurtzea proposatzen dugu. Irakurketa pausatua jarriko dugu martxan prozesuan zehar:

- Lehenik eta behin, aurrezagutzak landuko ditugu:
- Izenburuak zer dio?
- Jarraian, hasi irakurtzen; zuen erabakia izango da nork irakurriko duen. Aintzat izan, betiere, haurraren adina.
- Egin geldialdiak irakurtzen ari zaretela, eta egin galdera batzuk ulertzen ari dela ziurtatzeko.
- Irakurtzez amaitzean, irakurritakoaren ondorio bat ateratzea proposatzen dugu, nola ez, galdera batzuen bidez:
 - Zer deritzozu Goigoikoak eginiko promesa bete ez izana berak esanda moduan?
 - Eta Noeren jarrera? Zure ustez, bere eginbeharra zen hitzaldi horretarako beste aurpegi bat ateratzea?
 - ...



39. HITZA BETE NAHI, ETA
HITZEZ BETE NAIZ!

7. BARRITXU

Lagundu haurrari komikia irakurtzen; izan ere, hizkuntza dela eta, zailtasunak izan ditzake berau ulertzeko. Irakurri bion artean lasai-lasai, eta, amaitzean, azaldu iezaiozu haurrari gure lurraldean badaudela zuek erabiltzen duzuen euskalkiaz gain beste batzuk ere. Eman adibide batzuk. Amaitzeko, abesti bat kantatzeko proposamena egingo dizuegu: “BAGARE” kanta. Kanta ez badakizue, ikasteko aukera bikaina izango duzue! Interneten aurki dezakezue! ANIMATU!!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Jarrai dezagun irakurketarekin gozatzen! Hauxe da gure proposamena:

- Haurrari atal honetan dagoena erakutsi aurretik:
 - Lau izenburuak idatziko ditugu orri zatietan.
 - Estali egingo ditugu bertan ageri diren lau bertsoen izenburuak.
- Ondoren, haurrarekin batera bertsoak irakurtzen joango zarete, zuek aukeratu nola irakurri bertsoak, kantatuz, txandakatuz...
- Amaitzeko, jarri izenburuak dagozkien bertsoen gainean, eta ondoren, asmatu duzuen edo ez jakiteko, ikusi estalitako izenburuak nola dauden.

9. LAGUN

Komiki honetan, Marimototsek hitza ematen dio Laguni, behin eta berriz. Baina betetzen al du hitz emandakoa?

Hori jakiteko, irakurtzen hasi aurretik, hitz egin zure haurrarekin hitz ematen denean hitza betetzearen garrantziaz. Horretarako, hitz egin dezakezu zuen egunerokoan gertatzen zaizkizuen egoeren inguruan. Adibideak jarritz, berak hobeto ulertzea lortuko duzu!

Ondoren, esan zuk irakurriko diozula komikia, eta berak begiak estal ditzala komikia hobeto entzun eta ulertzeko.

Azkenik, animatu komikiari nahi diozuen izenburua jartzera! Hartu orri txuri bat, idatzi izenburu bat eta egin, behean, nahi duzuen marrazkia!

Erabili irudimena eta sortu nahi duzuen hori!



39. HITZA BETE NAHI, ETA
HITZEZ BETE NAIZ!

10. SAGUZARRA

Saguzarraren inguruko testutxoak irakurtzera animatzeko, jarri etxe osoan zehar saguzarraren marrazkiak eta irudiak! Esan haurrari animalia bitxia dela eta bere inguruan zerbait jakin nahi badu, aldizkarian aurkituko duela informazioa!

Irakurri nahi duzuen moduan eta, bukatzean, galdetu:

- Zerbait gehiago jakin nahi duzu saguzarren inguruan?
- Zer egin nahiko zenuke orain? Marrazki bat? Saguzarren inguruko ipuintxo bat sortu?... Ea ba zer bururatzen zaion!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Komiki hau irakurtzeko, esan zuk zeuk irakurriko diozula. Baina irakurtzean, irakur ezazu gaizki! Ea zer esaten dizun! Gaizki irakurtzen ari zarela esaten badizu, zer erantzun: Aiba! Ez dakit ba zer gertatzen zaidan! Irakurriko duzu zuk mesedez? Seguru nik baino hobeto irakurriko duzula eta...

Kontatuko diguzue!

12. MARTIN BERTSO

Oraingo honetan zera proposatzen dizugu:

Fotokopiatu Martin Bertsoren komikia eta moztu zatika. Jarri zatiak bere aurrean baina ordenatu gabe, eta animatu bera komikia irakurtzen duen heinean ordenatzera!

13. MARIKALANBRE

Marikalanbreren istorioan haurra irakurketara bideratzeko, jolas hau egin dezakezue:

Esan haurrari ipuina bion artean irakurriko duzuela eta irakurri ondoren berak nahi duen hitz bat aukeratu beharko duela. Zuk ez duzu jakin beharko hitza zein den. Hitz hori zein den asmatzeko, adosten dituzuen galderak (3, 4, 5...) egingo dizkiozu. Asmatzea lortzen baduzu, opari bat izango duzu!

Amaitzean, paperak alda ditzakezue, eta berari eskaini oparia jasotzeko aukera!

Gozatu!



39. HITZA BETE NAHI, ETA
HITZEZ BETE NAIZ!

14. LARGABISTA

Intxaurrondoaren inguruko informazioa ematen digu Largabistak! Atal hau lantzeko, hau da gure proposamena:

Esan haurrari testuan zehar gure mendi-baserri inguruetan eta soroetan aurkitzen den zuhaitz baten inguruan hitz egiten digula. Haurrak ezingo du oraindik jakin zein zuhaitzen inguruan hitz egiten ari garen.

Ipuina zuk irakurri beharko diozu, baina hitz klabea esan gabe, noski!

Ea zuhaitzaren izena zein den asmatzen duen!

Asmatu ondoren, komentatu haurrari egunen baten intxaurrondoak aurkitzera joango zaretela! Animatu eta joan intxaurrak batzera!

15. ZENBATAK

Komikitxo hau irakurtzera animatzeko, animatu haurra etxeko norbaitekin irakurtzera! Galdetu ea beste batekin irakurri nahi duen... Edo ea berak irakurri nahi dion baten bati! Hala bada, utzi lasai eta irakur dezala! Eman askatasuna nahi duenarekin irakurtzeko! Irakurketaz gozatzeko, beharrezkoa da aukeratzeko beta uztea!

Ondoren, galdetu ea Zenbaten inguruko marrazkiren bat egin nahi duen! Hala bada, gozatu marrazten!

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Ane pirataren eta Patakonen atala irakurtzeko, honako proposamen hau dugu zuentzat!

- Hartu aldizkaria, eta irakurri ahoz gora komikiaren izenburua.
- Ondoren, haurrak komikia ikusi gabe, galdetu ea izenburu horren arabera zein izan daitekeen gure laguntxoaren istorioa oraingoan! Ea zer dioen!

Jarraian, erakutsi irudiak, baina ez dezala ezer irakurri. Animatu beste izenburu bat ematera!

Jolas hau bukatzean, irakurri bion artean testua, eta, amaitzean, kontatu Txernobyldgo istorioa, zehaztasunez.

Nahi izanez gero, jarri ahal diozu bideoren bat ere.